

# Oilaskoak burtzoratzeke metodo berri bat onartu dute 18/05/21

Joan den maiatzaren 17an, indarrean sartu zen **burtzoratze-metodo berri** bat baimentzen duen Europako araudia; zehazki, **gizentzeko oilaskoetan aplikatutako presio atmosferiko txikian**oinarritutako metodoa da.

[Europako 1099/2009 EE Araudiak](#) arautzen ditu animaliek hilketan izaten duten ongizatea eta baimendutako burtzoratze-metodoak. Haren I. eranskinak burtzoratze-metodo baimenduak xedatzen ditu, eta eranskin hori aldatu egin da metodo berri hau sartzeko.

Metodo hau hala hilketa komertzialetarako nola hustuketa sanitarioetarako onartzen da, eta **ezaugarri**hauek ditu:

- Deskribapena: animalia kontzienteei deskonpresio graduala aplikatzea, arnas daitekeen oxigenoa % 5etik behera murriztuz.
- Erabilera-baldintzak: bizirik gehienez 4 kilo pisatzen duten gizentzeko oilaskoak; hilketa, hustuketa sanitarioa eta beste egoera batzuk.
- Oinarrizko parametroak: deskonpresio tasa, esposizioaren iraupena, giro-tenperatura eta hezetasuna.

[723/2018 CE Araudi berria](#)

---

# Antibiotikoen transmisio elektronikoa arautu da 18/04/26

Joan den apirilaren 18an, **191/2018 Errege-Dekretua** argitaratu zen, giza kontsumorako diren animaliei zuzendutako antibiotikoen albaitarien aginduen datuen transmisio elektronikoa ezartzen duena.

Arau berria **giza kontsumorako zuzenduta doazan antibiotikoetako albaitarien agindu guztiei aplikatuko da** eta transmisio elektronikoko hauen baldintzak arautzen ditu, **ezarri**z:

- **Albaiteroek, lan egiten dituzten ustiategietako giza-kontsumorako diren animaliei ezarritako antibiotikoen datuak administrazioari eman behar diote.**

Honela, albaitarien eremuan, [Antibiotikoen erresistentziaren aurkako Plana](#) betetzen da, arauaren aplikazioak datu kuantitatiboak emango dituzenez gero eta, beste alde batetik, erabilera egokiaren gainean kontzientziatuko du.

---

# Etxeko hegaztiak modu osasungarrian haztea

## 18/03/28

### ***Nola prebeni ditzakegu Salmonella edo Hegazti gripearen ondoriozko infekzioak hegaztiak haztean?***

Galdera horren eta beste hainbaten erantzuna [CDC](#) Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolerako AEBetako Zentroak egindako material interesgarrian aurkituko dugu.

Oro har erraz aurki dezakegu arrautzak manipulatu eta kontsumitu ondoren *Salmonella* infekzioa prebenitzeko moduei buruzko informazioa; alabaina, nahiko zaila gertatzen da **hegaztiak haztean eta haiekin kontaktuan egotean infekzioak saihesteko moduei buruzko informazio osoa aurkitzea.**

Hegazti bizidunekin (**txitak, ahateak, antzarak**) **kontaktuan egoteak eta/edo haiek manipulatzek nolabaiteko arriskua ekar dezake**, arrisku-taldeetan batik bat, hala nola haurren artean.

Esate baterako, *Salmonella* bakterioa, hegaztien gorozkietan ez ezik, hegaztien gorputzean egon ohi da (lumetan, hanketan...), baita itxuraz garbi badaude ere, eta ingurunean ere egon daiteke (hazkuntza-lekuko zoruan, asketan, urasketan...).

Infekzio-arriskua are handiagoa izan ohi da hegaztiak edota materialak ukitu edo manipulatu ostean eskuak ahora eramaten baditugu; hori sarriago gertatzen da haurren artean.

- **Horregatik, garrantzitsua da eskuak uraz eta xaboiak garbitzea hegaztiekin edo haien inguruko materialekin kontaktuan egon ondoren.**

### **Salmonellaren ondoriozko infekzioaren prebentzioa**

Hegaztien hazkuntzan:

- **Eskuak uraz eta xaboiak garbitu** (hala badagokio, desinfektatzailearekin) eta hurrek eskuak garbitzen dituztela begiratu.
- **Erosi hegaztiak hazkuntza-zentro baimenduek hornitzen dituzten establezimenduetan.**
- **Hegazti bizidunei ez utzi etxe barruko gunetara sartzen**, eta are gutxiago sukaldera edo

elikagaiak gordetzen diren lekura.

- **Oinetako bereziak** erabili hegaztiak hazten diren eremura sartzeko.
- **Ez jan eta ez edan** hegaztiak hazten diren eremuan.

### **Hegazti-gripearen ondoriozko infekzioaren prebentzioa**

**A hegazti-gripearen birusak normalean ez du infekziorik eragiten gizakiengan.** Hala eta guztiz ere, kasu batzuk agertu izan dira noizean behin; batez ere, hegaztiekin kontaktu estua eduki denean eta higiene-egoera kaskarra zenean.

Nolanahi ere, **gogoan izan** behar dira jarraibide hauek:

- **Ez izan kontaktu zuzenik hegazti basatiekin.**
- **Ez izan kontakturik etxeko hegazti hilekin.**
- **Ez egon kontaktuan hegaztien gorozkiak** dauden guneekin.

### **Bidaietan**

Ez dago inolako mugarik pertsonak kutsatu izan diren herrialdeetara bidaiatzeko. Dena dela, **komeni da hauek kontuan hartzea:**

- **Ez bisitatu hegaztiak dauden haztegiak**, merkatuak edo zentroak.
- **Ez prestatu edo jan gutxi egindako** hegazti-haragi edo -produktuak.
- Higiene- eta **garbiketa-ohiturak praktikan jarri.**
- **Medikuarenera jo**, bidaian zehar edo ondoren **gaixotuz gero.**

Informazio gehiago:

- [Nola euki etxeko hegaztiak](#) - CDC
  - [Biosegurtasuneko fitxak](#) - ERPA, AVIALTER
-

# Hegazti-gripearen egoera Europan (2017ko aza. - 2018ko ots.) 18/03/27

Europan, 2017ko azaroaren 16tik 2018ko otsailaren 15era bitartean, oso patogenoa den hegazti-gripearen (IAAP, H5N6) agerraldi bat eta IAAPren (H5N8) bost agerraldi detektatu dira eskortako hegaztietan, IAAPren (H5N6) beste bi agerraldi gatibu dauden hegaztietan, eta IAAPren (H5N6) 22 kasu hegazti basatietan.

Azterturiko kasuen arabera, IAAPren birusak (H5N6) ez die hainbeste erasan eskortako hegaztiei, IAAPren birusarekin (H5N8) alderatuta. Horrez gain, gaur artean ez da frogatu Europan dabiltzan IAAPren birusek (H5N6) zerikusia dutenik gizakiak infektatzen dituzten kladoekin.

Bestalde, eta Bulgariako txostenen arabera, badirudi apalduz doazela IAAPrekin (H5N8) infektaturiko ahateen zantzu klinikoak.

Alabaina, IAAP (H5N8) oraindik ere presente dago Europan, eta oso hedatuta inguruko eskualdeetan. IAAPk (H5) hiru hilabeteotan hegazti basatietan eragin dituen heriotza-kasu gehienak banako hegaztien arteko kasu puntualekin lotuta daude. Gainera, patogenotasun eskaseko hegazti-gripearen 20 agerraldi jakinarazi dira hiru estatu kidetan.

Egoera hori ikusirik, ondorio hau atera da, besteak beste: **Europan arrisku txikia dago herritarrei animalien bidez gripea transmititzeko.**

Bestalde, **A hegazti-gripeak (H7N4) kutsatutako gizaki baten lehen kasua jakinarazi da Txinan**; horrek agerian jartzen du hegazti-gripearen birus emergenteek gaixotasuna gizakiei transmititzeko arriskua dagoela. **Aurrerantzean ere zorrotz kontrolatu behar da Afrikan eta Ekialde Hurbilean zein den IAAPren (H5N1 eta H5N8) egoera.** Birusa kontrolik gabe hedatzen bada, eta gerora geografikoki Europarekin lotuta dauden eskualdeetan bilakaera genetikoa baldin badu, kezka areagotuko da eta birusa hedatzeko arrisku handiagoa sortuko da. Oraindik ere uste da hirugarren herrialdeetatik migrazio-hegaztien bidez IAAP Europara sartzeko arriskua askoz txikiagoa dela hegoaldeko mugak zeharkatzen dituzten hegazti basatien artean, ipar-ekialdeko mugak zeharkatzen dituzten hegaztien artean baino. Gripea merkataritzaren bidez transmititzeko arriskua, berriz, oso-oso txikia da oraindik.

[IAAPren egoerari buruzko hiru hilean behingo txostena](#)

---

# Animalien Ongizaterako Batzorde Nazionala sortu da 18/03/12

Espainiako Albaitarien Elkargoen Kontseilu Nagusiak (CGCVE) **Animalien Ongizaterako Batzorde Nazionala** sortu du. Batzorde horren helburua izango da, besteak beste, **oinarri zientifikoa duten arlo horretako dokumentuak egitea**.

Organo hori Kontseiluko Zuzendaritza Batzarreko hiru kidek eta animalien ongizateko hainbat esparrutako lau adituk osatzen dute.

Otsailaren 20an egin zuten lehen bilera, eta bertan epe labur eta ertainerako **jarduketa-gai nagusiak** landu zituzten; besteak beste:

- **Alarma soziala pizten duten eta Batzordearen esku-hartzea behar duten egoeretan jarduteko mekanismo bat ezartzea**, irizpide tekniko, zientifiko eta profesionalak erabiliz.
- Animalien osasunari eta ongizateari, elikagaien segurtasunari eta animalianganako tratu txarren aurkako borrokari buruzko **barne-prestakuntza ematea albaitariei, baita gizarte osoari ere**.
- **Animalien ongizaterako protokolo bat** osatzea, gai horren inguruko informazio eta gida desberdinak bateratuz, albaitarien lanbideko jarduketak zehazteko.
- **Animalien aurkako tratu txarrak identifikatzeko protokolo bat** egitea, albaitariak halako egoerak detektatu eta behar diren neurriak har ditzaten.

Organo hau sortzea bat dator Europako gidalerroekin; izan ere, gidalerro horien arabera, animalien ongizatea kontuan hartu behar da politika guztietan zeharka eragiten duen faktore gisa, eta esparru horretan hartzen diren legegintza-neurriak irizpide zientifikoari jarraitu behar diote beti.

Hala, [625/2017 Erregelamendua](#)ren (EE) 95. artikulua ezartzen du Europar Batasuneko (EB) Erreferentzia Zentro bat sortu behar dela.

Ildo horretan, **martxoaren 5ean** [329/2018 Erregelamendua](#) argitaratu zen, eta horren bidez **Wageningen Livestock Research unibertsitatea** (Herbehereak) buru duen partzuergoa izendatu zen **Animalien Ongizaterako Europako Erreferentzia Zentro**. Partzuergo horretako kide dira, halaber, **Aarhuseko Unibertsitatea** (Danimarka) eta **Friedrich-Loeffler-Institut** (Alemania). Erreferentzia Zentroaren zeregina izango da Batzordeak eta estatu kideek animalien ongizaterako betekizunen esparruan gauzatzen dituzten jarduera horizontalei babesa ematea.

[Informazio gehiago](#) - Espainiako Albaitarien Elkargoen Kontseilu Nagusiaren webgune ofiziala

---

# **Dermatosi nodular kutsakorraren aurkako txertaketaren eraginkortasuna 18/02/27**

2007an Europako hego-ekialdeko herrialdeetan dermatosi nodular kutsakorraren (DNK) agerraldien kopuruak behera egin izanak **adierazten du ezarritako txertaketaren estrategia (txerto bizi ahuldua) eraginkorra dela.**

Europako Batzordeak EFSari eskatu zion Europako hego-ekialdeko herrialdeetan DNKren izurrien azterketa epidemiologikoa egin zezala, Europako hego-ekialdeko herrialde kaltetuetan (EBkoak izan ala ez) jasotako datuetan oinarrituta.

## ***Txostenaren ondorioak***

- Turkia alde batera utzita, Europako hego-ekialdean izurria **2015ean hasi zenetik, DNKren 7.900 agerraldi jakinarazi dira**, eta gutxi gorabehera 13.650 animalia kutsatu dira.
- **2016an, DNKren 7.483 agerraldi** jakinarazi ziren, eta 12.330 animalia kutsatu ziren Balkanetan.
- **2017an, 385** agerraldi bano ez ziren jakinarazi eta 850 animalia kutsatu ziren, batik bat Albanian (379 agerraldi), txertaketa erabat gauzatu ez zen etaazienda kalteberagoa zen eremuetan.
- 2017an jakinarazitako agerraldi-kopuruaren **beherakadak agerian uzten du eskualde mailan egindako txertaketa masiboaren kanpainak eraginkorrak direla.**
- **Txerto bizi ahulduaren bidezko txertaketaren estaldura % 100ekoa da**, eta kutsatutako herrialdeetan (Grezia edo Mazedoniako Errepublika Jugoslaviar ohia besteak beste) lortutako immunitate kolektiboak drastikoki murriztu du gaixotasunaren hedapena 2017an noizbehinkako agerraldi batzuetara.
- **Hala ere**, azken agerraldi horiek erakusten dute **birusa oraindik ingurumenean eta/edo azienda-populazioan dagoela** eta berriro ager daitekeela animaliak kalteberak izaten direnean edo erabat immunizatuta ez daudenak gaixotasunarekin kontaktuan jartzen direnean.

Hau agindu horren esparruan egindako bigarren txostena da eta proiektuan inplikaturako herrialdeetatik jasotako datuetan oinarritzen da: Albania, Bulgaria, Kroazia, Mazedoniako Errepublika Jugoslaviar ohia, Grezia, Kosovo, Montenegro, Serbia eta Turkia.

[2016an, EFSaK Jakinarazpen bat argitaratu zuen](#), eta bertan azaldu zuen **txertaketa behar bezala aplikatzen denean, kaltetutako animalia batzuk hiltzea guztiak hiltzea** (gaur egun horixe eskatzen da EBn) **bezain eraginkorra dela gaixotasuna errotik kentzeko.**

## ***Gaixotasunaren Europako epidemiologia***

1988. urtera arte, gaixotasun hau Saharaz hegoaldeko Afrikan baino ez zegoen, baina gero Egiptora hedatu zen. 2015 bitartean, Afrikatik kanpoko agerraldi bat baino ez zen egiaztatu laborategian. 1989an izan zen, Israelen. Kutsatutako animalia guztiak edo horiekin kontaktuan egondako guztiak hil zituzten, eta txertaketa erabili zen kontrol-tresna gisa.

**2013az geroztik, gaixotasuna Turkian ere badago, eta 2015eko ekainaz geroztik Europako bere aldean. Handik Greziara iritsi zen, eta hor 2015eko abuztuan jakinarazi ziren lehengo agerraldiak. Hortik aurrera, mendebalderantz hedatu zen. Grezian zein Balkanetako beste herrialde batzuetan txertoa jartzen hasi dira prebentzio gisa arriskuan dauden eskualdeetan, gaixotasuna gehiago heda ez dadin.**

Grezia kaltetzen duen egungo agerraldiaren anduiek hedatzeko gaitasun handiagoa dute birusaren orain arteko anduia klasikoek baino. Bestalde, gaixotasuna Ekialde Ertainetik Armeniara hedatzen ari da, eta hortik Daguestánera (Errusia federazioko eskualdea) igaro da. Horixe izan da, hain zuzen ere, Errusiak bere lurraldean egin duen lehenengo jakinarazpena.

Nahiz eta **Espainian orain arte ez den dermatosi nodular kutsakorren agerraldirik jakinarazi**, ezagutu egin behar dira gaixotasunak kontrolatzeko eta errotik kentzeko beste herrialde batzuetan erabiltzen dituzten estrategiak.

## ***Informazio interesgarria***

[DNKren egoera epidemiologikoari buruzko txostena](#) - MAPAMA, 2016

[DNKren aurrean gauzatu beharreko ekintzei buruzko eskuliburu praktikoa](#) - MAPAMA, 2016

---

# **Animalien ongizatea eta nazioarteko jardueretako lehiakortasuna 18/02/27**

Nazioarteko merkataritzaren arloan, **animalia-ongizatearekin lotutako arauak betetzeak lehiadesberdintasunak** sortzen ditu **Europako operadoreen artean**. Bada, Europako Batzordeak, desberdintasun horiek murriztu diren aztertze asmoz, "[Animalia-ongizatearen arloko nazioarteko jarduerak mundu globalizatu batean europar nekazarien lehiakortasunean duten eragina](#)" izeneko txostena osatu du.

Txosteneko **ondorioen** artean hauek aipa daitezke:

1. Animalien ongizateari buruzko nazioarteko jarduerak luzerako inbertsioa dira, eta inbertsio horrek hiru urrats hauek ditu oinarrian: sentsibilizazioa, gaitasunen errefortzua eta finantzaketa. Urte hauetan, **Batzordeak baliabide garrantzitsuak jarri ditu egitasmo**

**horiek aurrera ateratzeko.**

2. Batzordeak eta EBko estatu kideek animalien ongizateari buruzko **sentsibilizazioa sustatu dute mundu osoan**, eta **emaitza handiak** lortu dituzte.
3. Batzordeak konpromiso sendoa du balioetan oinarritutako **nazioarteko merkataritzarekin**, «[Guztionezko merkataritza](#)» estrategiak agerian uzten duen moduan, eta garrantzia ematen dio animalien ongizatea sustatzeari.
4. Batzordeak hirugarren **herrialdeekiko elkarrizketan animalia-ongizatea sartzea lortu du**.
5. EBk laguntza handia eman du **OIEren arauak egiteko prozesuan**.
6. **Aldebiko lankidetzari esker, errazago aplikatu ahal izan dira EBko inportazio-eskakizunak, hilketaren unean animalia-ongizatearen arauetara buruzkoak**.
7. Batzordeak **ikerketarekin, prestakuntzarekin eta gaitasunen** errefortzuekin lotuta egin dituen jarduerak milaka profesionalengana heldu dira.

Europako Batzordeak, azken urteetan, hainbat **ekintza egin ditu mundu osoan animalien ongizatea sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko**, alde batetik Europan exijitzen diren baldintzen berri emateko eta bestetik horrek guztiak **beste herrialde batzuetako ekoizpenarekiko sortzen dituen lehia-desberdintasunak murrizteko**.

Nazioarteko ekintza horien bidez, Europako Batasunak animaliei dagokienez dituen balioak indartu nahi dira, eta **animalia-ongizatearen maila egokiak sustatu, batez ere EBko bazkide komertzialen artean**. Europako Batzordeak, [Animalien babeserako eta ongizaterako EBren estrategian \(2012-2015\)](#), jada adierazi zuen animalia-ongizateari buruzko xedapenak sartu behar zirela aldebiko merkataritza-akordioetan edota beste lankidetzak-modu batzuetan, baita hirugarren herrialdeekin batera zuzenean lan egin behar zela ere.

Txostena 2012an kaleraturiko «[Study on the impact of animal welfare international activities](#)» (Animalia-ongizatearekin lotutako nazioarteko jardueren eraginari buruzko azterlan) lanean dago oinarrituta.

---

## **[Argitaratuta jarduera txikietarako osasun- araudia egokitzen dituen Aginduak 18/01/29](#)**

Eusko Jaurlaritzako **Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegitureteko eta Osasun** Sailek, EHAAn argitaratu berri dituzte Euskadiko ustiategi txikietara egokituriko betekizun higieniko eta sanitarioak ofizialki ezartzen dituzten aginduak; zehazki, **arrautzak** eta **esnekiak** ekoizten eta merkaturatzen dituzten ustiategiei dagozkienak:

- Arrautzak: [AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegitureteko sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena](#), A kategoriako arrautza ez industrialetarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituena.



- Esnekiak: [AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena](#), esneki eta izozkietarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituena.

Orain, **esne-bolumen eta arrautza kopuru txikia** eraldatzen duten Euskadiko ustiategiek euren errealitatera egokitutako eskakizunak bete ahal izango dituzte:

### **Esnekiak**

- **Zein produktu?** Esne pasteurizatua, jogurtak, mamiak, kefirra, gazta freskoak eta erdionduak, gurinak, esne-gainak, gaztanbera, gutxienez 60 eguneko ontze-aldia duten eta esne gordinarekin eginda dauden gaztak eta esne-izozkiak.

**Zenbateko bolumena?** Gehienez ere:

- 100.000 litro behi-esne eraldatu urtean
- 30.000 litro ardi-esne
- 40.000 litro ahuntz-esne eraldatu urtean

### **Liburuxka**

### **Arrautzetan**

- **Zein produktu?** Oilo erruleen A kategoriako arrautzak, ustiategian bertan ekoitziak.

**Zenbateko bolumena?**

- 350 eta 1.000 oilo errule bitartean dutenak.

### **Liburuxka**

**Sektoreko agenteek eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Osasun Publikoko Sailak eta Foru-aldundiek** elkarlanean jardun dute aukera berri honi bide emateko, **ELIKA**ren aholkularitzarekin eta koordinazioarekin.

Arau hauek, ondorengo Dekretu honen menpean garatu dira: [76/2016 DEKRETUA](#), maiatzaren 17koa, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzeko dena.

---

# Ekoizpen ekologikorako arau berriak

## 17/12/27

Estatu kideen eta Europako erakundeen arteko hainbat hiletako negoziazioen ondoren, joan den azaroaren 20an Europako Kontseiluak berretsi egin zuen **ekoizpen ekologikoari buruzko egungo legeria aldatzeko erabakia; legeria berria 2021eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.**

Aldaketa horren bitartez, **harmonizatu egingo dira EB barruko praktika ekologikoak**, eta egungo **kontrol-sistema modernizatuko da**. Oso beharrezkotzat jotzen zen egungo araudia eguneratzea; izan ere, kasu batzuetan, 20 urte zituen araudi horrek.

Ekoizpen ekologikoa hazten ari den sektorea da: ia 27.000 milioi euro mugitzen ditu eta azken hamar urteetan % 125 hazi da.

Aldaketaren **hasierako helburua zen estatu kideetan aplikatzen diren salbuespen guztiak ezabatzea**; hala ere, azkenean, **salbuespen batzuk mantendu dira**, besteak beste esplotazio mistoak izateko baimena (hau da, elikagai ekologikoak eta arruntak ekoizten dituztenak) edo 2035era arte hazi edo animalia arruntak erabili ahal izatea.

Beste alde batetik, aipatzekoa da 2017ko abenduaren 8ko 2017/2273 Exekuzio Araudiaren bitartez argitaratutako **epeen luzatzea**; horren bitartez, epea 2017ko abenduaren 31 izatetik **2018ko abenduaren 31 izatera igaro da**. Epe hori honako hauei aplikatuko zaie: modu ekologikoan hazi ez diren oilandak erabiltzeko salbuespenezko ekoizpen-arauari eta txerriei nahiz eskortako hegaztiei ekologikoak ez diren pentsu proteikoen ehuneko txiki bat (% 5) emateari.

Aldaketak honako beste **berritasun aipagarri hauek** ere badakartza:

- Bukatu egingo da Europar Batasuneko arauen eta beste herrialde batzuetako arauen arteko egungo ekibalentzia-sistema; horren ordezt, “adostasun” mekanismo bat ezarriko da.
- Kontrolak elikagaien ekoizpen-kateko maila guztietara hedatuko dira, nahiz eta sinpleagoak

izango diren.

- Urtean behin kontrolak egingo dira tokian bertan; hala ere, arrisku baxuko operadoreen kasuan (azken hiru urteetan ez zaie iruzurrik hauteman), kontrolak bi urtean behin egingo dira.
- Ekoizle txikiek taldeko ziurtagiria jasotzeko aukera izango dute.
- Prebentzio-neurri zorrotzagoak ezarriko dira; horri esker, baimendu gabeko substantziek elikagaiak ustekabeen kutsatzeko arriskua murriztuko da.
- Arau berriek orain arte baino elikagai ekologiko eta elikagaiak ez diren artikulu ekologiko gehiago arautzen dituzte, besteak beste gatza, artelazkia edo esentzia-olioak.

#### **EEko esteka ofizial interesgarriak:**

- [Nekazaritza ekologikoari buruzko webgunea](#)
- [Ekoizpen ekologikoaren araudi berriari buruzko galderak eta erantzunak](#)
- [Ekoizpen ekologikoaren araudi berriari buruzko laburpen-fitxa](#)
- [Nekazaritza ekologikoaren logotipoa](#)

---

## **Landa-hegaztien biosegurtasun-fitxak** **17/12/27**

Landa Hegaztien Europako Elkarteak **(ERPA) biosegurtasun-fitxa** batzuk egin ditu Europako

landa-hegaztien hazleentzat:

- [1. fitxa](#) - Ekoizpen Unitateen kudeaketa eta babesa
- [2. fitxa](#) - Sarbideen kontrola eta "Osasun-hutsa"

Fitxa ulerterrazak dira eta hegaztien ustiategi batean **errespetatu beharreko oinarrizko printzipioak** gogorarazten dituzte:

- **Hazkuntza-eremuak babestea** eta esku-hartzaile guztiak kudeatzea.
- **Ekoizpen-unitateak independenteki** kudeatzea.
- **Palmipedoak eta galinazeoak bereiztea.**
- **Osasun-sarbidea** erabiltzea.
- **Elikagaia, ura eta hegaztiak babestea** hegazti basatiek hegazti-gripea izanez gero.

Hegaztiak hazten dituzten ustiategi guztiak biosegurtasuneko **neurri zorrotzak aplikatu behar dituzte osasun-mehatxuetatik babesteko, hala nola hegazti-gripetik**. Testuinguru horretan, ERPAk lan hori egin du 2017an.

Hasteko, estatu kideek biosegurtasunaren arloan zituzten araudiak alderatu ditu eta gero, biosegurtasuneko **neurri homogeenak zehaztu ditu Europako hegazti-hazle guztientzat**.

Fitxa horiek **lau hizkuntzatan eskura daitezke: ingelesa, frantsesa, gaztelania eta italiera** ([ERParen web orria](#)).